

Baltik

Iñaki Palacios & The Gael's

Iñaki Palacios txistulariaren (Gasteiz, 1988) musika ibilbidea sendotzen doa poliki-poliki. 2013an arrakasta lortu zuen "Danza del vino" abestiarekin, eta doinu hori enblematiko eta entzute-sua bilakatu zen Arabar-Errioxan urtero egiten zen "Mahats bilketaren" festan. 2017an, "Lurra, ardoa, dantza" lehen diskoa argitaratu zuen Mulixka Dantza Taldearekin batera. 2019an "Harria" diskoak ikuskizun aparta ondu zuen Iñaki Perurena eta Mulixka. Hirugarren diskoan lehendik laguntzaileak izan dituen taldekideekin batera dator, The Gael's-ekin.

Iñaki Palaciosen "Baltik" Oiartzungo Mecca estudioetan grabatu, nahasi eta masterizatu dute Mikel Ezeiza eta Igor Ezeiza soinu teknikariek 2020ko abenduan. Abesti guztiak txistulariarenak dira baina "Step ahead" Eskoziako Ali Levack-ena da. Hemen laguntzaileen zerrenda: "Baltik" abestian AMAK taldeko Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano daude ahotsetan. "That boot is for me" abestia Goiatz Duttok (Moonshine Wagon) ahotsa sartu du eta letra idatzi du. "We'll toast together again" abestian Aldoc taldeko Alan Dogherty-k whistlea jo du.

Iñaki Palacios txistulari gasteiztarrek "Baltik" hirugarren diskoan txistuaren soinuaren begiradatik Irlandako doinuetara garamatza, hango jende, pub eta tradizioetara, baina dena Europa iparraldean nagusi den ikuspegi musikal eklektiko batetik abiatuta, adibidez new/trad, post/folk edo neo-trad. Baltik Irlandan erabiltzen den esamolde bat da eguraldi meteorologikoa negargarria denean; hotz bortitza, euri etengabea eta haize jelatua. Dena batera. Musikalki, ordea, "Baltik" diskoak ez du erakusten hoztasunik, ongi babestu da txistuaren zolitasuna, eta ez bakarrik ondoan dituen tresnekin, baita erakutsi nahi duen bi herrialdeen nortasun eta ezaugarri musikalekin, biak batuta; euskal eta zelta moldagarritasunak uztartuta, senidetuta.

STEP AHEAD

Ali Levack (Eskozia) musikariari enkargatutako doinua da. BBC-k "2020ko musikari gazte tradizionalaren" saria eman dio Levacki, zeinak whistle eta gaita eskoziarra jotzen dituen. "Step ahead" (Urrats bat aurrera) izenburuak ezin hobeto definitzen du diskoaren espiritua, eta baita 2020a ere. Europako iparraldean ematen ari diren new/trad, post/folk edo neo-trad korrante berrien zirriborroa dago melodian.

BALTIK

Abesti hau Irlandara egindako hainbeste bidaietako batean sortu zen, eta Belfastko pub batean nengoela, nire lagun bat txistuka hasi zen, bigarren diskoko abesti bat gustatzen zitzaioela esanez. Ez zuen bate-re antzik, eta txistukatu zuen horretatik abesti berri bat aterako zela esan nion). Mugikorrean daukat delako audioa. Baltik Irlandari begira dago, bere jendeari, pubei eta tradizioei. Amak taldeak (Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano) ahotsak sartu ditu.

THAT BOOT IS FOR ME

Irlandako errugbi taldeetan "hasiberria-isekak" ohiturazkoak dira. Horrela, Tullamore, Dublindik mendebaldera dagoen herrirka batean, ohitura dute hirugarren zatian klubeko zapatila zahar eta erabilitakoa hartu eta jokalaria bakoitza edaten ari denarekin betetzea. "Rookie"-a taldeko beste kide bat izango da trago batean edan ondoren. Moonshine Wagon taldeko Goiatz Duttok kontatutako eta kantatutako abestia da.

THREE JOKERS

Diskoko abestirik pertsonalena eta intimoena da. Gure "joker" maiteak (gure artean erabiltzen dugun esamoldea da, Irlandan dugun koadrilari buruz hitz egiteko) bisitatzea ezin joatearen inpotentziatik sortutakoa da. Musikak hori duela esaten da, zerbait txarretik zerbait ona aterai daitekeela, eta kasu honetan horrela izan da. Konfinamendu batean sortua, Skype-tik hitzaldi luzeak eman eta gero.

SHADDDY McLOY

Dublingo pub batean apustu bat irabazarazi zigun lasterketa-zaldi bat da Shaddy McLoy. Ez zen asko izan irabazitakoa, baina arratsalde hartan Shaddy McLoyren kontura edango genuela pentsatze hutsak dena aldatu zuen. Reelen erritmoarekin, diskoaren estetika irlandar tradizionalena duen abestia da.

HOLIE

Konfinamenduaren ondoren kirola egitera ateratzen ginen lehen egunetan sortutako abestia, nire kasuan pedalei eragitea. Ez dut gogoan bi gurpilen gainean eman nuen denbora, bizikletan ibiltzen nintzen lehen aldiko sententzia dut, baina zerbaitek gitarra hartzea eraman ninduen etxera iristean, oroitzapen hau betiko grabatuta uzteko.

WHALE OF A TIME

Irlandan "denbora eman" esateko erabiltzen duten esamoldea da (adib: goazen pubera denbora ematera). Agian, Euskal Herriko erritmo tradizionala gehien hurbiltzen den abestia da. Kasu honetan, txistulariek hainbestetan jo izan ditugun "gaiak eta bariazioak".

KORAPILOAK

2020ko martxoaren hasieran sortutako abestia, dena albiste kontraesankorak zirenean. Egun batean gauza bat esaten ziguten, bi egunetara beste bat, eta melodia eta kontramelodia antzekoa da, egunen moduan, bata bestearen gainean jarrita. Bals erritmodun abestia, "Kulturunea"-k ekainean zuzenean eta streaming bidez eskainitako kontzertuan estreinatua genuena.

WE'LL TOAST TOGETHER AGAIN

(Berririo egingo dugu topa). Alan Dogherty-ren laguntzarekin (irlandar whistle jotzaile entzute-sua). Lehen egiten genuen bezala, laster berriro elkartu eta irlandar kulturaz eta puben barruan eta kanpoan sozializatzeko moduz gozatzeko itxaropenarekin sortutako abestia da. Sláinte!

Iñaki Palacios: txistua

Javi Garay: gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa eta banjo tenorra

Eneko Espino: baxu akustikoa eta elektrikoa

Errando Lpz. de Luzuriaga: trikitia

Iñaki Alarcia: bateria eta bodhran-a

Xabi Mrtz. Ochagabia: biolina

ritxi aizpuru + iñaki palacios
(2021eko otsailaren 11a)